AMASA-VILLABONA BOST ARTISAUREN LANAK, ROTETA DENDAN // 6

ataria

ASTEAZKENA
2021/12/29
9. urtea, 1.529. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Tolosako Udalak Berdintasun Kontseilua eratu du

Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakunde, talde nahiz norbanakoek parte hartu ahalko dute; kontseiluaren lehen bilera urtarrilaren 13an egingo dute // 3

Maila handiko finala espero da igandean, Pebet oroimenezkoan

Behar Zana elkarteak antolatzen duen pilota txapelketa finalera iritsi da; Murua-Aizpuru eta Igoa-Arbizu bikoteek neurtuko dituzte indarrak txapelaren lehian // 7

Bihar 2021eko urtekaria jasoko dute Atarikideek, eta hurrengo alea urtarrilaren 7ko astekaria izango da

Hodei abesbatza sortu berria partaide bila ari da

Shrabani Aranzabe da zuzendaria eta David Azurza koordinatzailea; oraingoz bederatzi gaztek eman dute proiektuan parte hartzeko urratsa // 2

JON MIRANDA

ZIZURKIL

HERRI KOOPERATIBARANTZ

Herribizigune elkarteak dinamizatu du Plazaetxeberriren etorkizuna erabakitzeko parte hartze prozesua; aldi teorikoa amaitu dute, eta 2022an gobernantza partekatzeko eredu berriari forma emango diote // 4

Hodei Truk abesbatza berreskuratzeko bidean, talde berri bat sortu dute Tolosan: Hodei. 15 urtetik gorako 9 gaztek osatzen dute, eta abenduaren 19an eskaini zuten lehen saioa

Lurruntzen ez diren ahotsak

Hodei Gazte Abesbatzako kideak, Shrabani Aranzabe zuzendariarekin batera, lehen kontzertua eskaini ondoren. ATARIA

Josu Artutxa Dorronsoro

Ikasturte berria hasi zenetik, David Azurzak eta Shrabani Aranzabek, erronka bat zuten begiz jota. Garai bateko Hodei Truk abesbatza berreskuratu nahi zuten, Tolosako Hodeiertz abesbatzak harrobia izan dezan, eta batez ere, Tolosako nahiz Tolosaldeko gazteek abesbatzen mundua gertutik ezagutzeko aukera izan zezaten. Horretarako, deialdia zabaldu zieten eskualdeko gazte guztiei, eta erantzun ona izan du.

Aranzabe da abesbatzako zuzendaria; Azurzak, berriz, koordinatzaile lanak egingo ditu. «Gazteek eskaera luzatu ahala erabaki genuen abesbatza berrindartzea, eta lortu dugu, euren ekimenez», azaldu du zuzendariak. Urte luzez martxan egon zen proiektu bat bada ere, izena aldatu diote: Hodei Gazte Abesbatza. «Inoiz ez da erraza izaten zerbait berriz martxan jartzea, baina gogoa eta ilusioa izanez gero, edozer da posible», azpimarratu du Aranzabek.

Tolosak duen abesbatza testuingurua kontuan izanik, bai Aranzaberi, baita Azurzari ere «oso garrantzitsua» iruditzen zitzaien herriak berak «mugimendu berri eta fresko bat» izatea. «Horrelako mugimendu bat badagoela, existitzen dela eta indarra duela adierazteko balioko du abesbatzak. Horrez gain, oso aberasgarria izango da gazteek euren esperientzia propioak bizitzea, guk urteetan bizi izan duguna eurei transmititzea, beraiek ere guk gozatu duguna bezain beste gozatu dezaten», esan du zuzendariak.

ZERBAIT BEREZIA PIZTEN

Dealdia luzatu zutenean, hamabost kideko abesbatza izatera heltzea zen Aranzaberen eta Azurzaren helburua. «Zifra ideala litzake ahots guztiak orekatuta egoteko». Oraingoz, bederatzi gaztek eman dute abesbatzan parte hartzeko urratsa. «Abesbatzak soinu ona duela, oso ondo funtzionatzen duela eta barruan duten indar guztia erakusten dutela ohartu gara», gaineratu du zuzendariak. 15 urtetik gorakoak dira ia abeslari guztiak. «Ez dakit zein adinetan uzten dioten gazte izateari, baina etorkizunean, Hodeiertzen abesteko aukera izango lukete».

Zuriñe Cipitria koruko abeslariak aitortu duenez, nahiko erraz konbentzitu zuten abesbatzan hasteko: «Beti gustatu izan zait abestea, eta lehenik amak eta ondoren lagun batek, deialdiaren berri eman zidaten, eta azkenean, asko pentsatu gabe, parte hartzea erabaki nuen». Oier Gastesi da abesbatzako beste kideetako bat; «proiektuan hasieratik dabilen lagun batek mutilak behar zituztela aipatu zidan, eta izena eman nuen», esan du.

Pasa den abenduaren 19an eskaini zuen abesbatzak lehen saioa. Arimaz orkestrarekin eta Hodeiertz abesbatzarekin batera antolatutako Gabonetako kontzertu berezian hartu zuen parte. «Poztasun handia sentitu nuen lehen aldi hartan, ez bakarrik kontzertuan bertan abesteko aukera izan genuelako. Aldagelan geundenean ere zerbait berezia pizten edo sortzen ari ginela ohartu ginen, eta gure arteko harremanetan ikus zitekeen hori», aitortu du Cipitriak. «Oso polita izan zen, batez ere, taldean abesteko aukera izan genuelako», gaineratu du Nadia Hajik.

«IKASTEKO ETA HOBETZEKO»

Abesbatzaren beste helburuetako bat partaide bakoitzak autonomia izatea dela nabarmendu du Aranzabek. «Oso garrantzitsua da norberak dituen ahalmenak eta konpetentziak hobetzeko aukera eskaintzea, gerora, taldea hobetzen lagundu dezaketelako», esan du zuzendariak. «Ikasteko eta hobetzeko gaude hemen», gaineratu du Gastesik.

Abesbatzako kide gehienak ikastetxeetako abesbatzetan aritu izan ziren haurrak zirenean. Oraingoa, ordea, bestelako talde bat dela aitortu dute. «Gutxiago gara, eta gure arteko harremana ere estuagoa da». Etorkizunean, helduen abesbatza batean parte hartzeko asmoei buruz galdetuta, honakoa esan du Gastesik: «Oraingoz gazteak gara, eta oso ondo gaude gauden tokian; aurrerago ikusiko genuke».

Urte berria, asmo berriak dio esaera zaharrak. Bada, Aranzabek eta Azurzak badituzte zenbait abesbatzarako. «Proiektu ugari ditugu eskuartean, martxan jartzeko prest. *Taulan* izango da horietako bat, mimo handiz prestatzen ari garena; eszenografiarekin edo gorputz adierazpenekin lotuta dago».

Zuzendariek bete dute lehen erronka, taldea osatzea, baina gehiago nahi dute. Koruan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera dute oraindik, *hodei@gmail.com* helbidera idatziz edo 662 285 417 zenbakira deituz.

Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba
Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia
EGUNA: 2022eko urtarrilaren 13ean.
ORDUA: 17:30ean, lehenengo deialdian.
18:00etan, bigarren deialdian.
TOKIA: Uzturpe Ikastolan.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuek deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Euskal Herriko Gazte Orkestraren kontzertua, bertan behera

Tolosan eta hiru hiriburutan eskaini behar zituzten emanaldiak, baina positibo berriak atzeman dituzte taldean

Erredakzioa

Euskal Herriko Gazte Orkestrak kontzertu bereziak eskaintzeko asmoa zuen datozen egunetan, neguko programari hasiera emateko. Hilaren 31n, Urtezahar egunean, Tolosako Leidor aretoan eskaini behar zuten kontzertua. Horrez gain, urtarrilaren 2an Donostian, 3an Bilbon eta 4ean Gasteizen ziren aritzekoak. Hala ere, COVID-19 gaitzaren positibo kasuak atzeman dituzte musikarien artean, eta beraz, bertan behera utzi behar izan dituzte kontzertu guztiak. Tolosako saiorako sarrera erosita zutenek, Leidorreko leihatilara joan beharko dute, dirua jasotzeko.

ElkarEkin programa jarri du martxan Tolosako Udalak

Egoera zaurgarrian dauden pertsonei lan merkatuan sartzen laguntzeko doako ikastaro batekin abiaraziko dute

Erredakzioa

Tolosako Udalak urtarrilean abiaraziko du ElkarEkin programa, egoera zaurgarrian dauden pertsonei laneratzen laguntzeko doako ikastaro batekin. Urtarrilaren 10etik 27ra izango dira prestakuntza saioak, 09:30etik 13:30era, Oriaburu eraikinean.

Ekintzailetza eta autoenplegua dira programaren ardatz nagusiak. Hori dela eta, ikastaroan parte hartzen dutenei beren lanpostu propioak sortzeko tresnak eta baliabideak erakutsiko dizkiete. Ikastaroan izena eman nahi dutenek, *enplegua@tolosaldea.eus* helbidera idatzi edo 943 000 309 telefonora deitu behar dute.

Berdintasun Kontseilua sortu du Tolosako Udalak

Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakunde, talde, kolektibo zein norbanakoek parte hartu ahal izango dute; urtarrilaren 13an egingo dute lehen bilera, 18:00etan, udaletxean

Erredakzioa Tolosa

Emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko eta berdintasun arloan aurrerapausoak ematen jarraitzeko, Berdintasun Kontseilua sortu eta abiarazi du Tolosako Udalak. «Emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko bidean asko dago egiteko oraindik. Tolosarrekin eta herriko talde eta eragileekin elkarlanean, emakumeen eta gizonezkoen aukera eta tratu berdintasuna sustatzen jarraituko dugu, Tolosako bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren eremu guztietan», adierazi dute.

Tolosako emakumeen parte-hartzea bultzatzeko gune bat eskaintzea da kontseiluaren helburu nagusia; gune horrek, berdintasunaren arloko erabakiak hartzeko prozesuan eragiteko beharrezkoak diren mekanismoak eta bideak ezarriko ditu. «Emakumeen eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak defendatzeko sortu dugu, eta mugimendu feminista eta emakume-taldeak aitortzen laguntzea du helburu, haien eskubideak defendatu eta zabaltzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako politika publikoak bultzatzeko lankidetza sustatzeko».

Tolosako Asanblada Feministak azaroan egindako ekitaldian hartutako irudia L.C.

Tolosako alkateak, udalean ordezkaritza duten talde politikoetako zinegotzi banak eta Berdintasun Sailak hartuko dute parte kontseiluan, udalaren ekintzen berri emateko eta kontseiluaren eginkizunak eraginkortasunez garatzeko beharrezkoak diren tresnak ahalbidetzeko. Horiez gain, Tolosan emakumeen eskubideen alde lan egiten duen edozein erakunde, talde, kolektibo edo norbanako emakumeek ere parte hartu ahal izango dute. Kolektibo bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da, eta norbanako modura parte hartzen duten emakumeek hitza izango dute haien iritzia eta ikuspegia azaltzeko, baina ez dute botoa emateko aukerarik izango.

Kontseiluaren lehen bilera urtarrilaren 13an izango da, 18:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Bileretara joan ahal izateko Berdintasun Sailean eman behar da izena. Izena emateko eta informazio gehiagorako, *berdintasuna@tolosa.eus* helbidera idatzi behar da, 943 670 383 telefono zenbakira deitu edo kultur etxera bertaratu.

Tabernek 01:00etan itxi beharko dituzte ateak

Ezingo da zutik kontsumitu eta edukiera mugatuko da; neurri berriak urtarrilaren 28ra arte egongo dira indarrean

Erredakzioa

Pandemiaren aurkako neurriak gogortzea erabaki du Labik. Batzordea atzo arratsaldean bildu zen, eta hainbat neurri adostu ditu, nagusiki ostalaritzari eragingo dietenak: tabernak eta jatetxeak beranduenez 01:00etan itxi beharko dira, ezingo da zutik kontsumitu, eta barnealdeetako edukierak gehienez ere %60koa izan beharko du. 01:00etako mugak gainontzeko kultur, gizarte edo kirol ekitaldiei ere eragingo die.

Hortaz gain, kopuruz, ekitaldietako edukierak gehienez 600 lagunekoak izango dira barnealdeetan, eta 800ekoak kanpoaldean. Barnealdeetan kirola egiteko, berriz, gehienez hamar lagunek elkartu ahalko dute, eta aldagelek %50eko edukiera izango dute.

Jaurlaritzak Gabonetarako neurri bereziak ezarri nahi zituela ere azaldu zuen azken egunetan. Bada, establezimendu komertzialek ezingo dute goizeko 8ak baino lehen zabaldu urtarrilaren 5ean eta 6an. Urtezahar, urteberri, eta errege eguneko bazkari eta afariei buruz, berriz, Iñigo Urkullu lehendakariak gehienez hamar lagun elkartzeko gomendioa eman du. Neurriak urtarrilaren 28ra arte egongo dira indarrean.

Espainiako Gobernuak joan den astean agindu zuen aire zabalean ere maskara erabiltzeko, eta kalean maskara jartzeari dagokion neurria ezarri zen, beraz, Hego Euskal Herrian. Urkulluk, ordea, adierazi zuen neurri horiek ez direla aski pandemiaren bilakaerari kontra egiteko.

GUTUNA

Gaztetxeak aurrera

Ibarrako gaztetxea historia oparoa duen gaztetxea da. Belaunaldiz belaunaldi igaro da gaztetxearen testigua eta 14-17 urte bitarteko kuadrilla asko ia modu natural batean bertan parte hartzen hastea lortu da.

Belaunaldi guztietan gertatzen den bezala guztiok ez gara berdin lotu gaztetxearen lan dinamikara, batzuk asko inplikatu izan dira eta beste batzuk, mota askotako arrazoiak medio eta ez soilik adinagatik, gaztetxearekiko eta asanbladarekiko ez dute ia inplikazio eta erantzukizunik garatzen.

Horietako gehienek prozesu natural baten bitartez eman dute bigarren plano baterako pausua, baina gertatu izan da ere garai ezberdinetako gaztetxeko kideek, gaztetxearentzat onena hori zela iritzita, zenbait pertsonei albo batera geratzeko beharra adierazi edo ulertarazi izana.

Azken urteetan ere antzeko prozesua eman da, batzuk inplikatu dira eta beste batzuk ez, baina, oraingoan, egoera muturrekoa bihurtu da eta gertaeren bilakaera ezohikoa izaten ari da. Gaztetxearen dinamikan ekarpena egiteko borondaterik ez eta, gainera, gaztetxearen jarduna oztopatzen aritu da kuadrilla bat ia bi urtetan. Asanbladari eta bere erabakiei zilegitasunik aitortu gabe jardun dute, nahi zutena egiten, eta gaztetxeko gehiengo zabalarekiko errespetu falta sistematikoak egin dituzte.

Horren adibide askotariko bi dira ondorengoak: gazte asanbladak gaztetxea gauetan itxita mantentzeko erabakia hartu zuenean, neurri murriztaileak medio kontrakoa egiteak zekartzan arriskuak zirela eta, parrandak antolatu izan dituzte eta beste hainbatetan gaztetxekoek gaztetxea ixteko ordua zela esandakoan etxera zihoazenaren itxura egin izan dute, ondoren gaztetxera itzuli eta gaueko ordu txikietara arte bertan egoteko. Nahiz eta ez egiteko esan, behin eta berriz errepikatu dira antzeko egoerak. Errealitatea da beraien kuadrillaren aisialdi pribaturako erabilera soilik eman diotela gaztetxeari, beraien gustuko giro zehatz bat erreproduzituz eta herriko gazteen artean izaera sektario, partikular eta pribatua duen gazte lokal baten irudia proiektatuz gaztetxe batena beharrean.

Behin eta berriz beraiekin hitz egin ondoren eta, emaitzarik gabe, egoerari beste aterabide bat ematen saiatu ondoren, gaztetxeko gainontzeko kide guztiok eta, ondorioz, gaztetxearen gehiengo zabalak blokeo egoeraren aterabide bakar modura kuadrilla horri gaztetxeko proiektutik albo batera geratzeko gonbita luzatzea zela adostu genuen.

Hortik aurrera gertatutako guztiak, ordea, ezustean harrapatu gaitu eta arduraz bizi dugu egoera. Izan ere, salatu nahi dugu egoera hori eta, ondorioz, herriko gazte kuadrilla bat ezker abertzaleak eta udaletxeak instrumentalizatu egin nahi duela, gaztetxearen aurka egin eta berau ahultzeko helburu bakarrarekin. Hori lortzeko beharrezkoak zaizkion gezurrak eta gertaeren gaineko errelato interesatuak herrian zabaltzen ari da gainera, arrazoi ideologikoengatik geratu direla albo batera adibidez. Badakite, ordea, Ernaik, adibidez, gaztetxea erabiltzea asanbladan ontzat eman zela.

Ezker abertzaleak eta udaletxeak hori egitearen arrazoia, gure ustez, ondorengoa da: egun gaztetxean parte hartzen dugun gazteok ez dugu bat egiten ezker abertzalearekin.

Beste modu batera esanda, ezker abertzalearen estrategia politikoaren ikuspuntutik Ibarrako gaztetxea ez da funtzionala. Are gehiago, traba modura identifikatzen gaituztelakoan gaude.

Horren adibidetzat daukagu gai horri buruz hitz egiteko antolatu zen herri batzarrean gertatu zena. Ezker abertzaleko zenbait militantek oihu artean eta herriko alkateak hamabost bat lagun herri batzarretik kanporatu zituzten, batzuk beraien ideologiagatik eta beste batzuk inguru edo lagunarte jakin batekoak izate hutsagatik. Beraiek hala adierazi ziguten.

Gure ustez eztabaida eta elkarrizketa arrazionalak sustatzea beti da positiboa, egiarekin kompromiso etikorik izatekotan behintzat.

Axier Gurrutxaga,
Ibarrako Gazte Asanbladako kidea
Tolosako, Anoetako, Aiztondoko eta Alegiako Gazte Asanbladen adostasunarekin

*Gutuna osorik *Ataria.eus/ibarra* webgunean

Plazaetxeberri eraikinaren etorkizunaz erabakitzeko prozesuak, gobernantza partekatzeko herri proiektu bati eman dio bidea; publikoa, kooperatiboa eta komunitarioa den eredua adostu dute

Zizurkil lorautseztatzeko prest

Mujika eta Egibar Herribizigune elkarteko kideak, eta Urruzola Zizurkilgo alkatea, Plazaetxeberri atzean dutela. J. M.

Jon Miranda

Herrigunean dagoen Plazaetxeberri eraikina eskuratu ondoren, haren etorkizunaz erabakitzeko parte hartze prozesua abiatu zuen duela bi urte Zizurkilgo Udalak. Lehenengo bilera hartara gerturatutako herritar eta eragileen artean zeuden Herribizigune elkarteko kideak ere. Haiek hartu zuten prozesua dinamizatzeko ardura eta adostutako metodologia eta dinamikak jarraituz herritarren ekarpenak jaso dituzte 2019tik hona. Abendu hasieran aurkeztu zuten azken txostena. Prozesu publiko, komunitario eta kooperatiboa izan dela azpimarratu dute elkarteko kideek eta nabarmendu dute bidean konturatu direla oinarri horietan finkatuta kudeatu nahi dituztela etorkizunean, ez bakarrik Plazaetxeberri, baita herriko beste hainbat ekimen ere. Gobernantza partekatuaz ari dira.

«Hasiera batean ez geneukan horrelakorik buruan, baina ibilbideak berak erakutsi digu beste gobernantza eredu batzuk landu ditzakegula. Ez da soilik elkarte baten eta udalaren arteko harremana, harago jo nahi dugu eta iruditzen zaigu egiteko modu berri horren garapen logiko eta normalena herri kooperatiba bat sortzea dela», esan du Mikel Egibar Herribiziguneko kideak. Baieztapenarekin bat dator Iker Urruzola alkatea ere: «Batzordean aurkeztu den azken txostenak zuzenean interpelatzen du udala eta iruditzen zaigu gobernantza eredu berri baten bila jo behar dugula. Udal gobernuan argi dugu hori dela modua herritarrak boteretzeko, erabakiguneak ahalduntzeko eta erakundeetako boterea konpartitzeko».

Behin azken txostena aurkeztuta, alde guztiek hartu dute konpromisoa kogobernantza eredu horri forma juridikoa emateko eta herritarrekin batera, herri kooperatiba sortzeko pausoak emateko. Plazaetxeberri eraikinean eta Herrigunean abiapuntua izan duen ekimena Zizurkil osora zabaltzeko beharraz hitz egin du Urruzolak: «Kontuan izan behar da Herrigunea indartzen den neurrian Zizurkil herria ere aberastu egiten dela. Komunitatea indartu nahi dugu eta gure herriarekiko atxikimendua bultzatu».

KOMUNITATEA KOHESIONATUZ

Batzordean parte hartu duten herritarrek partekatu duten kezkaren berri eman du Alaitz Mujika Herribiziguneko kideak. «Sumatzen genuen komunitatean higadura bat ematen ari zela eta ados geunden Plazaetxeberri izan zitekeela herria indartzeko eta sendotzeko tresna bat». Oinarriak finkatzeko bi urteotan egin duten lanketa teorikoaren barruan, datuak biltzeko galdetegi eta pintxo tertuliak antolatu dituzte, dokumentazio lanak egin eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko txangoak egin dituzte, eta formazioa jaso dute. Emaitza «polita» izan dela nabarmendu du Mujikak, norberak dituen abilezia, irudimen eta sormena txertatu dituztela publikoa, komunitarioa eta kooperatiboa izango den herri proiektua definitzen.

Ibilbide honetan, proiektuaren kantoi-harria bihurtu dute ekonomia sozial eraldatzailea. «Garrantzia handia ematen diogu ekimen kolektiboaren balioari. Uste dugu benetan proiektu eraldatzailea izan dadin, oreka ekologikoan jarri behar dugula arreta, bizitzak erdigunean jarri eta burujabetza ezberdinei egin behar diegula lekua», esan dute Herribiziguneko kideek.

Aldi teorikoaren amaierara iritsi dira prozesuaren ondorioen txostena aurkeztuta. Parte hartzaileek azpimarratu dute guztien adostasunaren sinbolo eta emaitza dela txostena eta orain beste dinamika baten murgilduko direla. 2022an gobernantza partekatzeko eredu berriari forma emango diote eta sortuko den erabakigune berri horretatik emango dituzte pausoak Plazaetxeberri eraikinaren kudeaketa zehazteko.

Parte hartze prozesuan Pello Mari Otaño plazako eraikinean lekua izan dezaketen sei behar identifikatu dituzte. Ekimen horietako bizpahiru epe motzera martxan jartzeko urratsak eman daitezkeela uste du Mujikak: «Plazaetxeberrik aukera asko eskaintzen ditu baina dagoen egoeragatik zaharberritze lanak behar ditu. Inbertsio handia egin behar da. Plangintza bat adostu beharko dugu eta auzolana sustatu eraikina moldatzen joateko. Norberak dakienetik, ekarpen guztiak izango dira ongi etorriak».

Dena den eraikin guztia prest eduki aurretik proiektu horietako batzuk «modu xumean» martxan jarri daitezkeela uste dute Herribiziguneko kideek. Eraikinaren sotoan dagoen espazioa elkarlanean egokitu, eta bertan, elikadura gunea, kultur areto eleanitza eta topagune sozio-komunitarioa martxan jartzeko asmoa dute 2022an. «Abiatzeko aukera ikusten dugu. Ea zer ikasten dugun bidean, eta joango gara denborarekin eraikina ekintza gehiagorekin betetzen», esan du Mujikak.

Dinamika baten amaiera eta aldi berri baten hasiera izango da 2022a. Misio hori jarri diote euren buruari datorren urterako: herri proiektua egituratzea, jendartean ilusioa piztea eta herritarrak erakartzea, proiektu honen parte izan daitezen. «Zizurkil lorautseztatzeko prest gaude».

Bidania-Goiazko kutxazaina kendu du Kutxabankek

Lapurreta bat tarteko banketxeak ez duela konpondu nahi izan salatu du Bidania-Goiazko Udalak, eta gastuak eta hileroko mantenua udalak ordaintzea nahi izan duela

Eneritz Maiz Etxarri
Bidania–Goiatz

Bidania-Goiatz kutxazainik gabe geratu da, Kutxabank banketxeak hala erabakita. 2021eko maiatzaren 12an Bidania-Goiazko kutxazainean lapurreta egin zutela adierazi du Bidania-Goiazko Udalak, eta erabat txikituta geratzeaz gain, bestelako hainbat kalte ere eragin zituztela kutxazainean.

Harrez geroztik, Bidania-Goiazko Udala herriak Kutxabanken duen kudeatzailearekin harremanetan jarri dela esan du: «Hainbat aldiz berriro kutxazaina martxan jarri dezaten eskatu dugu». Kutxabankek hasieratik «intentzio eza» erakutsi duela argitu dute udaletik, eta, nahiz eta saiakera ugari egin, beraien proposamena «itxia» izan dela salatu dute. Berriro Bidania-Goiazko kutxazaina martxan jarri ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharra exijitu zioten udalari. Alde batetik, konponketa gastuak izango liratekeen 6.000 euroak ordaintzea, eta behin konponduta, hilean 900 euroko mantenu kuota ordaintzea , hau da, urteko 10.800 euro. «Udalari ez dagokio honelako gastuak ordaintzea, eta gutxiago banku pribatu bat den aldetik», azpimarratu dute, eta horixe bera jakinarazi zioten Kutxabanki. «Erantzuna oso tinkoa izan da. Kutxazaina kendu dute», argitu du Bidania-Goiazko Udalak.

Kutxazaina kendu eta tapatu egin dute lekua. ATARIA

Garmendia, Garaialde, Artolazabal eta Rodriguez Ranz. ASIER BASTIDA / IREKIA

Paulo Garaialderen hilketari buruzko txostena egin dute

Triple A erakundeak hil zuen alegiarra 1982ko urtarrilaren 2an, Berastegin; senitartekoek Jaurlaritzaren esku utzi dute txostena

Gotzon Hermosilla Berria

1982ko urtarrilaren 1ean Paulo Garaialde taxilari alegiarra desagertu zen, eta biharamunean haren gorpua aurkitu zuten, bi eskopeta tiro zituela. Triple A erakundeak hartu zuen hilketa bere gain. Laster berrogei urte beteko dira hura gertatu zenetik, eta Garaialderen senitartekoek txosten bat egin dute, haren bizitzaren eta heriotzaren zenbait alderdi biltzen dituena. Elixabete Garmendia kazetariak koordinatu ditu txosten hori egiteko lanak.

Orain, Garmendiak berak eta Paulo Garaialderen seme Iñaki Garaialde Salsamendik Jaurlaritzari eman diote txostena. Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuorde den Jose Antonio Rodriguez Ranzek hartu dute dokumentua. Orain, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak auziaren ardura hartuko du eta ahaleginduko da «egia, justizia eta erreparazioa» bilatzen.

107.6 fm · Ataria.eus
ASTEAZKENA, 2021eko abenduaren 29a

Herriko bost emakume diseinatzaile artisauren lanak erakusgai jarri dituzte urtarrilaren 9ra bitarte Roteta dendan; «opari berezi bat erosteko leku ezin aproposa» dela azaldu dute billabonatarrek

Erosteko, galdetzeko, jakiteko...

Asier Imaz

Pop-up modan dagoen kontzeptua da. Iraupen mugatua duten dendei egiten die erreferentzia. Villabonan, Kale Berriko 60an, Roteta denda hartu dute herriko bost diseinatzaile artisauek, Gabonetarako bakarrik. Urtarrilaren 9ra arte egongo dira bertan, euren lanak erakusten eta saltzen. Ordutegia ondorengoa da: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara; eta larunbatetan goizez.

Maria Barrena eta Susana Carretero (Sualma, egurrezko jostailuak); Mirari Errandosoro (Kimuri); Virginia Ameztoy (Aza studios) eta Helena Agellek jarri dute pop-up azoka, eta ez da kasualitatea izan: «Gehienok baratze komunitarioetatik ezagutzen dugu elkar, eta filosofia hori gure sorkuntza lanetara eramaten dugu».

Roteta–ren atarian, ezkerretik eskuinera, Helena Agell, Mirari Errandosoro, Susana Carretero eta Virginia Ameztoy. A.IMAZ

IDEIAREN GAUZATZEA

Mirari Errandosorok Roteta denda ezaguna hutsik zegoela ikusi zuen. Virginia Ameztoy-ri kontatu zion izan berri zuen ideia, eta honek argi erantzun zion: «Ez!». Bere buruak, ordea, segidan egin zuen *klik* eta biak denda ikustera joan ziren; «zerbait berezia sentitu nuen. Roteta denda mitikoa da Villabonan. Bat-batean, Mirariren ideia aurrera eramaten hasi ginen, eta di-da batean egin genuen dena».

Pop-up azokaren ideia aurrera eraman ahal izateko herriko beste artistekin jarri ziren harremanetan. Horrela sortu zuten bostekoa. Eta bostak emakumeak. «Hasieran, agian, kasualitatea izan zen, baina nik beste irakurketa bat egiten dut», dio Susana Carreterok: «Leku eroso batean bildu gara, gure lanak era horizontal batean erakusten, bata bestearen gainetik egon gabe. Nire ustez emakumeen artean ematen da hori. Nik behintzat hori aurkitu dut».

Tailer txikiren batean edo etxean egiten dute sorkuntza lana. Hori plazaratzeko, ordea, garai onenak ez direla dio Carreterok: «Azoka gutxiago egiten ari dira. Horrelako leku eroso bat jartzea gure gauzak saltzeko ideia bikaina da. Azoka luze bat bezalakoa da, eta herrian bertan. Nik xarma handia ikusi nion hasieratik».

> **«Adin guztietako herritarrak gerturatu zaizkigu; jendeak oso gustura hartzen ditu azalpenak»**

Virginia Ameztoy-k artisau diseinatzaileen lana balioan jarri beharra dagoela dio, eta Gabonetan Rotetan jarri duten pop-up azokak horretarako ere balio duela uste du: «Hemen jendeak lan prozesu osoa ikusteko aukera dauka, ez azken produktua bakarrik. Hori interesgarria dela iruditzen zait. Villabonako bost emakume diseinatzaile artisau elkartu gara, eta gure lana nondik norakoa den erakusten dugu. Hori da balorean jartzea, jakitea nondik datorren, zer den, nola egiten den eta nora doan ordaintzen den diru hori».

Rotetan guzti hori ikus eta entzun daiteke, artistak han egoten baitira. Bertara doanak azkenean bizitzeko, kontsumitzeko eta harremantzeko beste modu baten emaitza ezagutuko du, eta horretaz gustura hitz egiteko prest dauden bost emakume.

ERANTZUNAREKIN «GUSTURA»

Urtarrilaren 9ra bitarte opari berezi bat erosteko leku ezin aproposagoa da Roteta, Susana Carreteroren esanetan: «Artisau lanak horrela izaten dira, bakarrak. Katean ezin dira horrelako gauzak egin. Denetarik dago, detaile bereziak dira, bakoitza kontzientziarekin egina da. Horrek erosten ari zarena ere kontzientziaz erostea dakar. Garrantzitsua da gaur egun hori, eta aldi berean, polita».

Egurrezko jostailuak, ehun estanpazio botanikoak, koadernaketa, zianotipiak, Gyotaku ehun japoniarrak, kamisetak, zapiak, belarritakoak... Eskaintza zabala dago Rotetako pop-up azokan, eta erantzuna «primerakoa» izaten ari dela diote. «Nik uste nuena baino askoz hobea. Oso gustura gaude. Mugimendu polita egon da egun hauetan. Adin guztietako herritarrak gerturatu zaizkigu, eta jende guztiak oso gustura hartzen ditu azalpenak. Sorkuntza espazio batean sartzen dira, eta guretzat horrelako zerbait egiten dugun lehen aldia den arren, oso eroso sentitzen gara gure artisau diseinu lanen inguruan hizketan. Beraz, jende guztia gonbidatu nahi dugu hona etortzera, galdetzera, ukitzera eta usaintzera».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria n jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!
TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€ bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Osteguneta 11:30ak arte hartzen ditugu

Herri kiroletako jaialdi zabala Asteasun

Egur Sport enpresak antolatuta, bost txapelketa izango dira jokoan abenduaren 31ko arratsaldean Usarrabi frontoian

Erredakzioa Asteasu

Ohi bezala, Asteasuk herri kirol jaialdia hartuko du abenduaren 31n. Usarrabi frontoian izango da, 17:00etan hasita, eta hainbat herri kirol modalitate ikusteko aukera izango da. Egur Sport enpresak antolatuta, bost txapelketa izango dira jokoan bertan. Batetik, Urrezko Aizkolarien Kopa, hiru parte hartzailerekin: Jokin Urretabizkia *Basozabal*, Hodei Ezpeleta eta Xabier Zaldua.

Beste txapelketa Binakako Harri-jasotze Txapelketa izango da, eta hiru bikote ariko dira lehian: Mikel Lopetegi *Urra* eta Iñigo Eizagirre *Eiza*, Jokin Eizmendi eta Gorka Etxeberria, eta Jon Unanue *Goenatxo III.a* eta Xabat Olaizola.

Emakumezkoak izango dira protagonistak beste hiru txapelketetan. Trontza txapelketan, esaterako, bi bikote ariko dira lehian: Ainhoa eta Maria Iraizoz, eta Nerea Egurrola eta Batirtze Ispizua. Ingude txapelketan, Karmele Gisasola *Zelai III.a*, Maika Ariztegi eta Luxia Orbe izango dira parte hartzaileak. Azkenik, aizkoran Nerea Sorondo eta Laiene Pikabea ariko dira nor baino nor.



Jon Unanue, aurten Asteasun egin zen Euskal Herriko Txapelketan. JON MIRANDA

Mendi federatu txartela izateko aukera

TOLOSA // 2022 urterako mendi federatu txartela eskatzeko hiru aukera eskaintzen ditu Tolosako Alpino Uzturre elkarteak. Batetik, Gudari 5eko bere lokalean, astelehenero, 19:00etatik 20:00etara. Bestetik, 943 65 27 89 zenbakira deituz, astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:00etara. Azkenik, *info@alpinouzturre.eus* helbidera idatziz. Bestalde, Eguberritan, lokalean, gaur eta urtarrilaren 3 eta 5ean, 10:00etatik 12:00etara ere aukera izango da.

Irazustabarrenak ezin izan du txapela jantzi

ALEGIA // Aratz Irazustabarrena pilotariak ezin izan du Bankoa Abanca-DV torneoa irabazi. Muruarekin batera 22 eta 21 galdu zuen Exposito eta Morgaetxeberriaren aurkako finala igandean Zarautzen.

Krosik gabekoa izango da Urtezahar eguna

Erredakzioa

Urtezahar egunean eskualdean hainbat herri kros egiten dira, urteari amaiera emateko kirola eginez. Aurtengoan, baina, ez da horrelakorik izango, antolatzen hasi zirenak bertan behera utzi dituztelako, COVID-19aren inguruan bizi den egoera dela eta.

Bertan behera geratu den azkena Ibarrako Urtezahar Krosa izan da. Herenegun eman zuten horren berri antolatzaileek sare sozialen bitartez. Aurten bederatzigarren aldiz egingo litzateke krosa, baina antolakuntzatik adierazi dutenez, ezin dute bermatu nahi bezala antolatzea.

Aurreko astean jakinarazi zuten Zunbeltz eta Urkamendi elkarteetako antolatzaileek Villabona eta Zizurkil arteko Urtezaharreko Krosa bertan behera uzten zutela, eta gauza bera gertatu zen urteko azken egunean Tolosan egiten den Elkartasun Krosarekin, Samaniego eta Orixe eskoletako kirol batzordeak horrela erabakita. Alegian egiten da ere krosa, baina aurten ez antolatzea erabaki dute.

Bestalde, Asteasun urtarrilaren 9an egitekoa zen VI. Elkartasun Krosa, eta ekitaldia antolatzen duen herritar taldeak eta udalak krosa atzeratzea erabaki dute. Urtarrila bukaeran krosaren data berria zehaztuko dutela jakinarazi dute.

Aizpuru asteasuarra izango da finalistetako bat. ASIER IMAZ

IX. Antton Pebet Oroimenezkoan, maila handiko finala igandean

Murua-Aizpuru eta Igoa-Arbizu izango dira txapelen bila joango diren pilotariak; finalaren aurretik joko garbi elite mailako partida izango da

Erredakzioa Amasa–Villabona

Iritsi da Behar Zana elkarteak antolatzen duen IX. Antton Pebet Oroimenezkoaren finalaren eguna. Orain bi asteburu jokatu ziren finalerdiak, eta finala igande honetan jokatuko da, urtarrilaren 2an, 11:00etan hasiko den jaialdiaren barruan. Txapelen borrokan bi bikote ariko dira, Murua-Aizpuru eta Igoa-Arbizu. Afizionatuen elite mailako lau pilotariek partida ikusgarria eskainiko dutela espero da. Sarrerak bost euro balio ditu; 14 urtetik beherakoek eta Behar Zana elkarteko pilotariek sarrera doan izango dute.

Tolosa-Aurrera elkarteko Aizpuru asteasuarrak arerio zaila izango du atzeko koadroetan, Irurtzun elkarteko Arbizu atzelaria. Finalerdietan bezala jokatzen badu, Arbizu izan daiteke finalaren gakoa. Partidan nagusitzeko gaitasuna du, eta horrela gertatuz gero, Oberena elkarteko Igoa aurrelariak aukera asko izango ditu tantoak bukatzeko. Orain arte ez du asmatu gehiegi pilota gurutzatzen eta ikusi egin beharko da igandeko finalean zenbat asmatzen duen. Aurrean, Soraluzeko Murua izango du, defentsa handia duen pilotaria, eta, beraz, berari tanto egitea zaila izaten da.

Finalaren aurretik, joko garbi elite mailako partida ikusteko aukera izango da. Karrikaburu-Sistiague eta Larronde-De Paredes bikoteak ariko dira elkarren aurka, eta aspaldiko jokamolde horrek bat baino gehiago harrituko du. Azken urteetan, joko garbiko pilotari onenak ekartzen dituzte Behar Zanakoek, eta aurtengoan ere lortu dute.

ASTEAZKENA, 2021EKO ABENDUAK 29
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

Ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEAZKENA 29

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. 11:00etan irudimen eta arte tailerra, erakusketa gelan; 16:00etan munduko jolasak, kultur etxean; 17:15ean, ipuin kontaketa, Gurean; 18:30ean zirku tailerra, kultur etxean.
Lizartza. Mahai jolasak, gunean, 11:00etan.
Tolosa. Gabonetako haur parkea, Zerkausian, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

Ikuskizunak

Amasa-Villabona. *El lobo y el leon* filma, Gurean, 19:00etan.
Elduain. *Munduko eskolak eta mundua eskola* argazki emanaldia, kultur etxean, 17:30ean.
Ibarra. Asier Kidam magoaren *Aroa eta mirariak* ikuskizuna, 12:00etan plazako estalpean.
Tolosa. Eñaut Elorrietak *Irteera argiak* diskoa aurkeztuko du Leidorren, 20:00etan.
Tolosa. Gure Zirkua, 19:00etan.
Tolosa. Txotxongilo taldearen *Itsasmine* zikuskizuna, Topic-en, 18:30ean.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika izango da entzungai.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean
11:30. Gaurkoan Tolosaldetik
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Motxila bete kirol

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi eguzkitsua eta epela izango dugu. Goizean behe-lainoa sortuko da, baina segituan jasoko du eta egun osoan eguraldi eguzkitsua izango dugu, nahiz eta, tarteka goihodei batzuk agertu. Hego-haizeak joko du eta tenperaturak gora egingo du. Maximoak 18-20 graduan kokatuko dira.

Bihar. Eguraldi eguzkitsua izango dugu. Goizeko behe-lainoa azkar batean desegingo da eta egun osoan zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Hego-haizeak orokorrean ahul joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, eguneko erdiko orduetan 19-20 graduan joko duelarik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KONTSUMOAZ LANKETA

***Gabonak eta Kontsumoa* saio hezitzaileak egin dituzte abenduan zehar ikastetxeetan kontsumo arduratsuaren lanketa egiteko helburuarekin. Tolosako Ingurumen Zentroak eman ditu saioak, eta Tolosan 180 ikasle inguruk parte hartu dute.** ATARIA

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

ZORION AGURRAK

Zorionak Ur!

Ur Gabellanes Calvo. Igandean 6 urte beteko dituzu. Muxu handi bat!